

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maria Jesus Fernandez Izagirre

*Andoain,
Gipuzkoa
(1933)*

Aurkibidea



Biografia



Andoaingo Santa Krutzen jaio zen. Bi anai-arreba ziren. Berak hiru urte besterik ez zituen Gerra Zibila lehertu eta aita eraman zutenean. Andoaingo kronikak idazten zituen aitak. Aita hil zutela esan zietenean ama, bizimodua nolabait atera behar eta josten hasi zen: tailer bat zuen etxearen azpian eta emakume asko etortzen zen bertara ikastera. Ama Bretxara ere joaten zen fruta eramatera eta goserik ez zuten pasa, etxearen atzealdean zuten baratzetxoari esker, besteak beste. Eskola askotan ibili izan da; Kontxa Arretxerekin aurrena, doña Pazekin gero eta Villa Argentinan ere bai mojekin. Hogeita hiru urterekin ezkondu zen Santa Kruz ermitan eta bi alaba izan zituzten.

Zintak

AND-009

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2010-03-08
- **Iraupena:** 65 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Aita gerran fusilatu zuten

- **Erref:** AND-009/002
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:00:56. **Bukatu:** 00:03:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Aita argiketari-maisua zen. Gerra garaian kartzelara eraman zuten iraultzailea izateagatik, eta kartzelan hil egin zuten. Polloen lurperatu zuten eta handik urte ugiritara arte ezin izan zuten ekarri Andoaína.</p>

Transkripzioa

- Aitta pentsatzet hemengua?

- Amona geldekan, hemengo amona, baserri batekua. Galardi. Eta ordun, ba, ezkondu zan Andoaina, kalea, eta... Kale Nagusia. Eta jaio zan hore nere aita. Eta hor bizitu da beti. Lana ta dana in du hor. Eta gero, ba, gerra denboran, ba, lan iten zun... "maestro-electricista" zan. Eta lana iten zun enpresa batian, eta mutillak eta gauzak zazkan, ba, erakusteko etortzen zianian aprendizak eta hola. Eta gero, ba, etorri zan gerra. Eta jarri zuen "comandancia militar" Andoainen. Eta esan ziyoen, ba, bost persona entidade hortatikan presentatu behar zuela horrea. Eta bitartian, baten batek, ba, esan zuen, ba, ziala "los revolucionarios". Eta alleatu zianian, "como pues no les vamos ha mandar..." eztiyou bialduko ostea, berriro, lanea. Hoiri kartzela jun behar due. Eta klaro, kartzela zan Andoainen, eta han eondu zian, ba, hiru aste oso kondiziyo txarretan. Eta gero, handika pasa zittuen kartzela Ondarretakoa. Donostiko Ondarretako kartzela. Eta han, ba, e... ya 22... hurrengo hillian 22... 22 octubre. Nola da octubre?

- Urriyan.

- Urrian. Urrian 22n, ba, in ziyoen "sumarísimo de guerra" eta hor... hil zuen hor. Eta gero, zean bertan... patiyu bertan. Eta gero, nik nakan izeba bat Antiguan eta abisatu zion nere amai eta presentatu zian denak, eta... Ez. Danak eaman zittuela Polloea. Eta Polloen, ba, bueno aber ba nun zeon... "a bestaldea pasa zittuela". Eta gero, ba, hasi zian indi... indagatzen ta beiratzen ta aber nun zauden ta nun zauden... Ta gero, ordun, ba esan ziyon konserge Polloekuak "Ez apuratu. Oso rato txarra pasatzen ai zea, baiño hemendikan zortzi urtea zure herria emango dezu". Eta ordun, pasa zian urte haik, eta esan zion... jun zan... konserjiak esan zion "ba hau da zure senarra". Ordun, hartu zuen kaja batian. Taxis batian... hartu zuen taxis batian bien artian. Ekarri zuen hezur hoik danak, baiño bitartian harrek ze in zun... Hitz ein zun hemen eta erosi zun panteoi bat. Sakrifiziyo haundiya inda, panteoi bat... zeatikan nahi zun, ba, honea etorri eta hemen in hori... oraziyo guzik eta danak eta... Behinik behin izateko, ba, gauza bat ona.

2. Heziketa han eta hemen jasotakoa

- **Erref:** AND-009/004
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:06:46. **Bukatu:** 00:09:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Aita hil zenean, berriro hutsetik hasi behar izan zuten. Ama josten hasi zen orduan. Kontxa Arretxe maistrarengana eramane zuten Maria Jesus: han zer ikasten zuten azaltzen du. Gerora, doña Pazekin ibili zen, eta azkenik, mojen eskolara joan zen.</p>

Transkripzioa

- Eta gero, ba, bizitza hasi bihar gendun "de cero", klaro. Eta nere amak, hasi zan, ba, josten. Josten hasi zan nere ama. Eta, klaro, gu, ba, hiru urtekin, hiru urte ta erdikin, bialdu zigun Kontxa Arretxe zala maistra bat euskeraz... dotriña gehiena eakusten ziguen hor. Ta gero, ba, etorri zitzaion

lagun bat aitana, oso laguna, maistra, Maria Paz Atarain, eta esan zion nere amai bialtzeko, bialtzeko eskolaa, zeatikan oso laguna zala, eta ze pasa zan, ba, harrittuta zeola. Eta, ordun, ba, esan zion, ba, juteko eta ez ziula kobratuko. Baiño, klaro, nazkan hiru izeba monja, eta beti eskribitzen ziyoen honi responsabilidade haundiya zakala, oso responsabilidade haundiya, bi haur, eta bialtzeko monjetaa neska eta mutillek frailletaa. Zeatikan responsabilidade hoi, aber ze pasako zitzaion. Oain arte karta hoik izandu dittut eta puskatzen aittu naiz, zeatikan gue neskak ez dakit zenbat gauza billatuko [diren] hor. Eta, bueno. Ta, ordun, ba, hola, esan zion, ba, asko sentitzen zula ta hola. Eta, gaiñea, ba, urtebete eondu giñan eta ez zion batere kobratzen. Ta honek erregalo bat bialdu ziyola, baiño, klaro, badakizu ze pasatzen dan, beti gelditzen zea zorretan. Eta, bueno, ordun, ba, bialdu zian monjetaa. Eskola... jesuitinas, Hijas de Jesus. Villa Argentina zan. Villa Argentina zan gure kolegiyua.

- Kontxa... Kontxa Arretxe esaten dezu, ez?

- Bai, Arretxe. Ta gero Maria...

- Horrekin zenbat denbora pasa zendun?

- Hoi pasa gendun, ba, igual geo're juten giñan bost urte arte o hola.

Dotriña, Aita Guria... Ta gero, hor, hor eskola hortan zaken alki batzuk.

Alkik, sagardotegin bezela, baiño txikin. Alki batzuk. Eta ikusten giñan danak alkarrekin, eta oso eskola politta zan. Eta hor ikasi gendun —bueno, amak eakusten zigun, baiño— Aita Guria, Jesukristo nere jaun, kredoa, salbia... danak. Danak eakusten zigun beak.

- Euskeraz?

- Dana euskeraz. Horrek eakusten zigun dana euskeraz. Gero, beste hortan, batzutan euskeraz'e bai doña Pazena, baiño gehiena erderaz horrek.

3. Euskara debekatuta kalean, baina babestuta bihotzean

• **Erref:** AND-009/005

• **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:09:05. **Bukatu:** 00:10:43

• **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Mojekin dena gaztelaniaz ikasten zuten eta ikasle gehienak erdaldunak ziren. Euskaraz hitz egitea debekatuta zegoen, baita kalean ere. Gaur egun dena euskaraz egiten dute lagunartean.</p>

Transkripzioa

- Ta gero, pasa giñanian baita're Villa Argentinaa, monjan konbentu hortaa... zergatikan, klaro, monjan konbentu hortaa nere izeba monjangatikan. Eta, klaro, ba, ordun, ba, pasa giñan horrea eta monjak zian danak erdaldunak. Eta dana-dana-dana iten gendun erderaz. Eta bakarrikan iten gendun etxian euskeraz amakin. Eta kalia debekatuba zegon. Kalia debekatuba zegon euskeraz hitz eitea! Hoi zan erruba gendekana hemen Andoañen. Danak basarritarrak, danak ezaunak. Zeatikan ni jaio nitzanian, nere amai aituta, nere aita nola zan iten zittuna kronikak Andoainguak, ba, ordun jartzen zun gendela, giñala ni jaio nitzanian, 1933n, hiru milla biztanle bakarrikan. Hiru milla. Eta gero,

estadistika etorrita, konturatu nitzan eta bi milla ta beatzirehun o hola. Eta esan nun “Hara! Ba aitak arrazoi zakan”. Nik aituta amai. Eta hoik danak. Eta, gero, klaro, ba, juten giñan kolegiyo hortaa, danak giñan, ba, erdaldunak eta hola. Eta gero, ba, askok baita ´re euskeraz, baiño gehiena iten gendun bi o lau neskakin euskeraz, baiño bestela danak erdaldunak zian. Danak erdaldunak! Eta gero, ba, oain...

- Zer zan, ba... Andoaingo jendia izango zan ba!

- Bai, baiño...

- Ta erdaldunak?

- Bai, bai, erderaz hitz eiten zan gehio. Zeatikan nola zeon horren debekatuba hoi...

4. Jolasean euskaraz eta gaztelaniaz

- **Erref:** AND-009/007
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:13:21. **Bukatu:** 00:14:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Umetan euskaraz hitz egiten zuten, baina kalean gaztelaniaz egin behar izaten zuten, euskara debekatuta baitzegoen. Jolasetako kantak euskaraz eta gaztelaniaz abesten zituzten. Kanta batzuk gogoratzen ditu.</p>

5. Meza nagusiaren ostean, amonarengana

- **Erref:** AND-009/009
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:17:57. **Bukatu:** 00:19:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Mojekin meza nagusira joaten ziren eta handik etxera itzulitakoan, amonak merienda prestatzen zien. Amonak pezeta bat ere ematen zien, eta zertan gastatzen zuten aipatzen du.

6. Amonaren laguntzailea bisitatarako

- **Erref:** AND-009/011
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:19:56. **Bukatu:** 00:21:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Maria Jesus eskolatik etxera noiz etorriko zain egoten zen amona, lagundu egiten baitzion senideei bisitak egitera.

7. Donostiako "Infernuaren" istorioa

- **Erref:** AND-009/014
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:23:22. **Bukatu:** 00:24:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Judasen istorioa eta Donostiako "Infernuaren" kontakizuna kontatzen du.

8. Amak eskolan ondo ikasi zituen gaztelania eta gizabidea

- **Erref:** AND-009/016
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:25:26. **Bukatu:** 00:27:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

Laburpena:

<p>Ama Igarako eskolara joaten zen ikastera umetan. Garai hartan ez zekiten gaztelaniaz, baina eskolan gaztelania eta gizabidea oso ondo ikasi zituzten.</p>

9. Gurasoek nola ezagutu zuten elkar

- **Erref:** AND-009/018
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:28:16. **Bukatu:** 00:31:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Amaren baserria oso handia eta ederra zen: Bretxara joaten zen amarekin fruta eramatera. Izeba-osabek tela-denda zeukaten eta Andoaingo emakume bat joan zen behin hara. Emakume harekin laguntasuna hasi eta azkenean Maria Jesusen ama haien etxera joan zen Andoaína; hala ezagutu zuen gerora senarra izango zuena.

10. Gurasoen ezkontza

- **Erref:** AND-009/019
- **Iraupena:** 0:04:18. **Hasi:** 00:31:55. **Bukatu:** 00:36:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Gurasoen ezkontza nolakoa izan zen azaltzen du: goizeko 7etan ezkondu zituen Don Joakin apaizak, gosaldu egin zuten, eta ezkonberriak eztei-bidaiara joan ziren Madrila eta Granadara. Granadan Alhanbran oso dotore jantzi zituzten, eta janzkera hura nolakoa zen deskribatzen du Maria Jesusek.

11. Ezkondu arte dena bekatu

- **Erref:** AND-009/024
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:42:57. **Bukatu:** 00:45:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Ezkondu bitartean dena bekatu zen, eta ez zuten ezer egiten bikotean. Ondo eramaten zuten hori. Mutil-lagunarekin gelditzeko lagun gehiago etortzen ziren, ez ziren bakarka egoten. Mutil-lagunarekin zer-nolako planak egiten zituzten azaltzen du.

12. Andoainen ibiltzen ziren arrain-saltzaileak

- **Erref:** AND-009/030
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:57:21. **Bukatu:** 00:57:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Andoaina etortzen ziren arrain-saltzaileak zein ziren aipatzen du.

13. Alabei ere euskararekiko maitasuna transmititzen

- **Erref:** AND-009/033
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 01:01:50. **Bukatu:** 01:03:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskarari garrantzi handia eman izan dio beti. Alabak euskaraz hitz egiten zen

leketara eramaten saiatu izan da: Donostiako Alderdi Ederrera, Zubietara,
Sorabillara...

Fernandez Izagirre, Maria Jesus | ahotsak.eus Orr.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com